

# Kutxabank Taldea

---

## Zerga-estrategia

## 1. Sarrera

Kutxabank Taldeak, sorreratik izandako ibilbideari jarraituz, erantzukizun sozialarekin jarraitzen du jardueraren garapenaren ardatz nagusi gisa. Talde laguntzailearen berezko konpromiso horrek modu egonkorrean eutsiko dio Taldeak gizartearen aurrean duen erantzukizunari.

Aurrekoaren ildotik, Kutxabank S.A.-ko Administrazio Kontseiluak (aurrerantzean “Kutxabank” edo “Entitatea”), Taldeko goiburu sozietate gisa, enpresa politika garden bati etengabe jarraitzeko konpromisoa hartu du, presentzia duen zuzentasun, zintzotasun eta komunitateen garapen ekonomikoarekin konpromiso sendoko irizpideei jarraiki, beti ere legea zorroztasunez beteaz.

Horri dagokionez, indarrean den Jokabide kode honek, zeinak zuzendaritza taldearen, langileen eta Administrazio Kontseiluaren jarrera eta jokaera zuzentzen duen, Kutxabankek onartutako errekonozimendu orokorreko gobernu onaren gomendioen eta korporazioaren erantzukizun sozialeko printzipioen esparruan onesten da, eta hura betetzeko oinarrizko erreferentzia osatzen du.

Kode horrek, Entitatearen misioan, ikuspegian eta balioetan oinarrituta, jarduketa arlo guztietan enpresa etikaren eta gardentasunaren printzipioekin haren konpromisoa biltzen du. Izan ere, Entitatearen hazkuntzarekin eta garapenarekin konprometitutako langileen bitartez interes-taldeekin harreman bikainak izate aldera, printzipioen eta balioen sustapenaren bitartez.

Ikuspuntu honetatik, Kutxabank, aipaturiko konpromisoaren ildotik, eta Jarrera Kodea zuzentzen duten balioei jarraiki, Zerga-estrategia hau zehazten du. Jarduera gauzatzen duen lurralde bakoitzari dagozkion zerga-eskakizunak betetze eta errespetatzen duen zerga-politika zorrotz batean oinarritutako zerga-estrategia da.

Horrela, Zerga-estrategia honen xedeak zerga-obligazio guztiak betetzeko konpromisoa biltzen du, aurrerakuntza ekonomikoaren eta sozialaren alde. Gainera, aldi berean, kudeaketa efiziente bat sustatzeko konpromisoa ere hartzen du, entitatearen akziodun Fundazioentzat balioa sortzen lagunduko duena, Obra Sozialaren garapenean haren oinarrizko betekizunari euste aldera.

## **2. Zerga-estrategia**

Kutxabank Taldeak jarraitutako estrategia fiskala Taldeko erakunde guztien zerga-betebeharrak zehatz-mehatz betetzera zuzenduta dago, jarduten duten lurralde-eremuan eskumena duten zerga-agintaritzen aurrean. Horretarako, Taldearentzat garrantzitsua den eragiketa bakoitzean hartutako posizionamendu fiskalak behar bezala egiaztatu eta dokumentatu behar dira, eta kontuan hartu behar da, gainera, zerga-politiken arloko jarrera eta erabaki guztiek erakundearen negoziorearen garapen arduratsua babestu behar dutela.

Puntu honetan, garrantzitsua da nabarmentzea Taldearen zerga-estrategia zuzentzen duen oinarritzko irizpidea egindako eragiketen errealitate ekonomikoari erantzutea dela, hau da, haien azpian dauden arrazoi ekonomikoak, plangintza artifizioso edo erasokorra izan daitekeen plangintza oro saihestuz.

Alde horretatik, zergen arloan irizpideak ezartzean erabilitako zuzentzea eta arrazoizkotasuna guztiz sendoa da, nola ez, Taldeak merkaturatutako produktuen eta zerbitzuen izaerarekin berarekin, baita hartutako erabaki korporatiboekin ere.

### **2.1 Oinarritzko zerga-egitasmoak**

Hauek dira, ondorioz, Kutxabank Taldearen zerga-estrategia zuzentzen duten oinarri nagusiak:

✓ **Taldearen zerga-arriskuaren kudeaketa eta kontrolko prozesuren zorroztasun maximoa eta diligentzia**

Aurrekoari jarraiki, Kutxabanke bere zerga-betebeharrak zorrotz betetzea bermatzeko kontrolko mekanismo egokiak aztertzen eta zehazten ditu. Batetik, aplikatu daitezkeen zerga-araudi desberdinen termino literaletan legeztatuta dagoenaren arabera, baita aplikatu daitezkeen araudi desberdinen xedearekin eta grinarekin koherentzia eta (ii) azpiko ondorio ekonomikoekin koherentean diren zerga-emaitzekin ere. Lan egiteko modu honen helburua zerga-arriskuak minimizatzea da, Taldeak legez hartutako zerga jarduerak defendatzeko guztiz beharrezkoak direnetara mugatuz.

Printzipio honek zerga arloko jarduera guztiak zuzentzen ditu eta, bereziki:

- Bere korporazio obligazioak betetzea.
- Eragiketen zerga obligazioak betetzea.
- Barne-partaideei, bezeroei edo hornitzaileei egindako atxikipenen sarrerak, eta dagozkien zerga informazioa zuzen bidaltzea.
- Informazioa eskatzen denean, hari erantzutea.

Horri dagokionez, Entitateak funtzio horien prozedurak zehaztuta ditu, eta horiek berrikusi eta egokituko dira, kasuan kasu, zerga behar berriak sortu ahala.

### ✓ Kudeaketa zuhurra eta kooperatiboa

Kutxabank Taldeko sozietateetan lan egiten duten pertsona guztiek entitateak bere zerga betebeharrak behar bezala betetzeko moduan garatu behar dute haien jarduera profesionala. Filosofia hori Taldeko zerga kudeaketari aplikatzeaz gain, Taldeko bezeroei eskainitako produktuei ere aplikatuko zaie.

Hau da, Kutxabank Taldeak ez du oinarritzen bere produktuen komenigarritasuna errentagarritasun fiskal oldarkorretan edo unean uneko politika fiskal eta ekonomikoekin bat ez datozen onura fiskaletan oinarrituta.

Zerga kudeaketa arduratsu baten aldeko apustua egiteak zerga Administrazio guztiekin lankidetzan betetzea sustatzen du, elkarrekiko konfiantzazko harreman baten bitartez, komunikazio argi, garden eta jarraitu baten inguruan beti ere.

“DAC 6” Europar Zuzentarau berriak aurreikusitakoaren ildo berean, Administrazio lankidetzan arloan, entitateak ez du parte hartzen mugaz haraindiko zerga-plangintza erasokorrak planifikatzeko egituretan. Era berean, Kutxabank Taldeak ez du parte hartzen zergak saihesteko izaera laudoko egituren erabilerak, eta ez du erosten edo kolaboratzen, inola ere ez, xede horretan, Espainiar Estatuaren arauetan zehaztutako paradisu fiskalen zerrendan bildutako jurisdikzioetan helbideratutako entitateekin.

Aldi berean, eta negozioa gero eta ingurune digitalago eta globalago batera egokituz Kutxabank Taldeak zerga arloko OCDEren Jarraibideetan zehaztutakoa beteko du, Transferentzia Prezioen politikei dagokienez gehienbat.

Zentzu horretan, Kutxabank Taldeak lotutako eragiketa guztiei aplikatzen die transferentzia prezioen politika, lehiakortasun osoan (*arm's length*) eta balio-esleipenean oinarritutako printzipioetan oinarritua, arriskuak hartzearen eta jarduten duen jurisdikzio fiskaletako baliabideen dedikazioaren arabera.

Azken finean, Kutxabank Taldeak balio ekonomiko eta soziala sortzeko enpresa politikarekin bat datorren zerga-politikari eusten dio, errespetuko konpromiso zintzoarekin eta legezko eskakizunak beteaz.

### ✓ Zerga-funtzioan efizientzia

Taldearen zerga-estrategiak balioa sortzea du oinarritzko premisa. Horregatik, Kutxabank Taldearen zerga-kudeaketak hurrengo oinarritzko jarduketa jarraibideak hartzen ditu:

- Entitatearen helburu orokorrekin egin daitezkeen ekintzekin lerrokatzea, Taldeko zerga-estrategiarekin bereziki.

- Jarduten den lurralde bakoitzari aplikatuko zaion zerga-araudia zorrotz betetzea eta baliabideen erabilera efizientea prozesuen estandarizazio, digitalizazio eta kontrolaren bitartez.
- Zerga administrazioekin lankidetzeta eta gardentasuna administrazioaren aurkako prozedurak murrizteko.

Eremuaren compliance funtziotik haratago, Kutxabank Taldeko Zerga arloko aholkularitzak aurre hartu nahi die araudiaren aldaketei eta aplikatuko diren interpretazio irizpideetan eguneraketak behar bezala barneratzeari, Taldearen interesak behar bezala babestuz, zerga arloko jurisprudentziaren jakintza eguneratuan oinarrituta.

Horretarako, Kutxabank Taldeko Zerga arloko aholkularitzako taldeak uneoro eduki behar ditu baliabide pertsonal eta material egokiak, eta ezinbestekoa izango litzateke emandako baliabideak arlo horretan espezializazio teknikoaren maila gorena edukitzea. Honi dagokionez, oso garrantzitsua da sektoreari aplikatuko zaion araudia ongi ulertzeko kanpoko zerga-aholkularien betekizuna.

### ✓ Gardentasuna

Kutxabank taldeak jarduera ekonomikoaren ondoriozko zergak betetzen eta ordaintzen dituela jakinarazten die interesa duten taldeei. Hala, Kutxabank Taldeak barneratutako zerga-kontrolako ereduak sakondu du eta bere borondatez argitaratu du, 2016tik egiten ari den bezala, jardunaldi horietako bakoitzari dagokion zerga informazioa.

Zentzu horretan, [“Kutxabank Taldearen Inpaktuaren analisisa ”](#) izenburuarekin jardunaldi bakoitzari dagokion argitaratutako txostenak aukera aparta ematen du taldearen zerga ekarpena ulertzeko, bankuaren jarduerarentzat estatu mailan zein Autonomia Erkidego mailan.

### **3. Zerga-estrategia honen berrespena eta eguneratzea**

Zerga estrategia hau Entitatearen Administrazio Kontseiluak onetsi eta berretsi du, eta mugagabea izango da.

Erakundearen indarrean dagoen jokabide-kodea aldatu eta/edo moldatu behar izanez gero, Administrazio Kontseiluari jakinarazi behar zaio, hark onar dezan.